



*Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la **Violencia**
Machista en Bizkaia*

BIZKAIKO INDARKERIA MATXISTAREN BEHATOKIAREN EBALUAZIO TXOSTENA

2021eko URTARRILA

Aurkibidea

SARRERA.....	3
1. 2017-2020 ALDIAREN EBALUAZIOA.....	3
1.1. EBALUAZIOAREN HELBURUA.....	3
1.2. ANALISI TEKNIKAK	4
1.3. ERREALITATEA ETA BILAKAERA EZAGUTZEA	5
1.4. KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA	12
1.5. EDUKIEN ETA EMAITZEN ANALISIA.....	15
2. BEHATOKIAREN IBILBIDEA 2004-2020.....	48
2.1. EBALUAZIOAREN PLANTEAMENDUA.....	48
2.2. BEHATOKIAREN HELDUTASUNA GBI EREDUAREN ARABERA.....	49
2.3 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEHATOKIETARAKO ADIERAZLEEI ERANTZUNA	59
3. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK.....	61

SARRERA

Txosten honetan, lehenik eta behin, 2017-2020 aldian Behatokiaren esparruan egindako ebaluazio jarduketak jaso dira, aurreko aldietako ebaluazio jarraituko prozesuekin bat etorriz. Oraingoan, hala ere, aurreko ebaluazio prozesuan batutako hobetze proposamenen, gomendioen eta erronken inguruan antolatu da edukia, eskusiboki. Lau urte hauetan Behatokiak erantzun egokiak bilatzea presente egon da; izan ere, denbora tarte horretan ezohiko inguruabarrak gertatu dira, izaera askokoak, eta horrek ere eragina izan du jardura ohikotasunez garatzean.

2004tik Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzura atxikita egon da, baina 2020an aldatu egin zen eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzara atxiki zen; hala, aukera bikaina da urte horietako ibilbidea aztertzeko, ikuspegi globala izateko eta etapa berriari baliagarriak izan daitezkeen irakaspenak identifikatzeko; etapa berri horretarako trantsizioa 2020an zehar egin da.

Horrenbestez, indarkeria behatokitarako Garapenerako Banku Interamerikarraren (GBI) Heldutasun Eredua erabili da tresnarik aproposena baita; izan ere, Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren izaeraren konparazio eta balorazio egokituagoa eta egituratuagoa egitea ahalbidetu duen tresna da.

1. 2017-2020 ALDIAREN EBALUAZIOA

1.1. Ebaluazioaren helburua

Behatokiak aurreko aldiaren (2013-2016) ebaluazioan planteatutako hobetzeko beharrian, gomendio eta erronkei emandako erantzuna ebaluatu da, ildo estrategikoen jarduketak antolatuz orain ebaluatzen den denbora tarterako hobetzeko proposamenek hizpide izan zituzten bi esparru nagusietan:

- **Indarkeria matxistaren errealitatea eta bilakaera ezagutzea**
- **Komunikazioa eta hedapena**

1.2. Analisi teknikak

Dokumentazioaren analisia: Proiektuaren ibilbidean zehar sortutako material guztia modu dokumentalean berrikusi da; besteak beste, agiri hauek nabarmendu behar ditugu:

- Urteko memoriak.
- Etapa honetan zehar garatutako jarduera bakoitzean sortutako agiriak.
- Proiektuaren koordinazioari eta funtzionamenduari buruzko dokumentazioa.
- Osoko Bilkuraren eta Lantaldearen bileretako aktak.

Behaketa parte hartzailea: Jarduera hau ezinbesteko tresna da proiektua ebaluatzeko. Aipatutako denbora tartean egindako hainbat jardunaldi, jarduera eta bileren prozesuak eta emaitzak aztertu dira, esparru horretako alderdi berritzaileak, aldaketak, joerak antzemateko, jarduerak garatzean lortutako inpaktuaren berri izateko eta pertsona eta entitate kolaboratzaile eta hartzaileen parte hartzea ezagutzeko.

2017-2020 aldian zehar, INFOPOLISeko talde teknikoak, idazkaritza tekniko gisa, Behatokiaren jarduera eta bilera gehienetan parte hartu du; honako hauek nabarmendu behar dira:

Osoko Bilkuraren bilerak

- 2017: Uztailaren 7a.
- 2018: Martxoaren 19a.
- 2019: Apirilaren 2a.
- 2020: Ekainaren 11.

Adierazleerako Lantaldearen bilerak

- 2017: Irailaren 14a eta azaroaren 10a.
- 2018: Ekainaren 19a eta urriaren 19a.
- 2020: Ekainaren 30a, urriaren 29a, azaroaren 12a, abenduaren 4a.

Parte hartzaileentzako galdetegiak: Behatokiaren jardueretan neurri txiki edo handiagoan parte hartu duten edo Behatokia osatu duten pertsonen zenbait galdetegi igorri zaizkie, garatutako prozesuen, lortutako emaitzen, inpaktuaren eta iraunkortasunaren inguruan egiten duten balorazioaren berri izateko.

- Osoko Bilkurako ohiko parte hartzaileak eta parte hartzaile puntualak.
- Adierazleetarako Lantaldeko kide iraunkorrak eta gonbidatutako kideak
- Webguneko bisitariak, etengabe eskuragarri egon den galdetegia betez.

Horrez gain, ebaluazio prozesu honetan, beste batzuetan bezala, galdetegiak Behatokiko udal informatzaileen sarera (UHS) ere bidali dira: Bizkaiko tokiko erakunde guztiak, arreta baliabide propioak dituztenak zein horrelakorik ez dutenak. Jasotako erantzunaren ehunekoa oso baxua izan arren (% 7,4) eta udalerri horiek ordezkatzeko duten populazio bolumena baxua bada ere, komenigarritzat jo da balorazioak modu kualitatiboan gehitzea, sarea horren gutxi ordezkatzeko duten emaitza kuantitatiboak eta aurretiazko ebaluazioetan izan duten garrantzia eman gabe.

1.3. GENERO INDARKERIAREN ERREALITATEA ETA BILAKAERA EZAGUTZEA

Behatokiaren helburu nagusietako bat egoera hobeto ezagutzea da zifratan, erantzun instituzionalean, joeretan eta bilakaeran. Esparru horretan aurretik finkatutako jardun ildoak eusteko eskaera egin zen, hurrengo erronka eta gomendioak txertatuz.

2017-2020 aldiaren aurreko ebaluazioan planteatutako **erronkak** bi izan ziren:

- Sentsibilizazio formula berriak sortzea, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak erregistratzeak duen garrantziari dagokionez, esparru guztietan, Behatokiaren proiektuaren emaitzak indartu eta ugaritzeko.
- Datu iturri berriak identifikatzea, sisteman eskuragarri daudenak.
- Zifrak txostena argitaratzeko epeak laburtzea

Honako gomendio hauek jaso ziren:

- Erakunde arteko lankidetzak eta kolaborazioak indartzea: datuak biltzeko prozesuan eta Behatokiak garatutako produktuak eta informazioa erakundeei igortzea.

Batez ere **datuak biltzeko prozesua hobetzera bideratuta daude.**

Horren haritik, Behatokiak berrikusteko etengabeko lana egin du eta hobetzeko elementuak identifikatu ditu, barne hausnarketatik eta entitate erabiltzaileengandik jasotako eskaeretatik abiatuz. Ebaluatutako denbora tartean, informazio gehiago eta hobe lortze aldera eta bilketa tresnak erabiltzea errazteko, honako ekintza hauek egin dira:

- Udako mailako datuak biltzeko sistemari eusten dion tresna digitala berritzeko lanak 2017an bukatu ziren, eta inprimakia berria urteko datu bilketako bi prozesuetan (urtekoa eta seihilekoa) aplikatu zen lehen aldiz. Sistema berriak software eta diseinu eguneratuak eskaintzen ditu, eta datuak batzeko fitxa Smartphone edo Tablet bidez betetzeko aukera ematen du. Horrez gain, hobekuntzak egin dira galdetegiaren diseinuan, erantzun alternatibak argituz eta erantzunen bideak erraztuz zenbait iragazki erabiliz; beharrezkoak ez diren itemak ezabatu egin dira.
- Galdera berriak ere sartu dira, baliabideen eskuragarritasunari eta ezaugarriei buruzkoak, eta erasotzailearekiko harremanari dagokionez banaketa handiagoa eskatu da.
- Udalez gaindiko mailan, genero indarkeriaren biktime izandako adingabeen inguruko datu berriak eskuragarri dauden egiaztatu da, ohiko iturriekin zein bestelako iturriekin kontaktuan jarri.
- 2020an Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzak prozesu baten plangintza jarri zuen martxan, hain zuzen ere **adierazle berriak** gehitzeko eta datuen **iturri berriak** bilatzeko, baita **datuak jasotzeko maiztasuna areagotzeko** aukerak aztertzeko ere, Adierazleetarako Lantaldeari jakinaraziz, eta entitateekin prozesu parte hartzaile baten bidez horri ekitea aurreikusita dago, 2021etik aurrera.

Datuak erregistratzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea indartzeko 2010ean sei hilekoko bilketa diseinatu zen, entitateetan datuak biltzea sistematizatzeko mekanismoak sustatzeko; entitateei banakako informazioa itzuli zitzaien (Udalen Informazio Orria), kasuan kasuko udalerrri edo zerbitzuen mankomunitateko adierazle esanguratsuenen laburpena. Formula baliatzen da udal mailan inplikaturako entitateek emakumeen aurkako indarkeriaren berri izan, hausnarketa eta/edo analisia egitea sustatzeko.

Neurria martxan jarri zenetik, edukiak mailaka aberastu dira informazio iturri eta adierazle berriekin. 2017-2020 aldian honako hau gaineratu zen orrian:

- Genero Indarkeriaren Biktima diren Adingabeen Familiar Esku Hartzeko Foru Programa

Datuak aztertzen eta joerak identifikatzen hobetzeko, Behatokiak etengabe hobetzeko prozesua garatu du lortutako datuak kudeatu eta datuon tratamenduari dagokionez zein hortik ondorioztatutako ezagutza hedatzeari dagokionez, Behatokiko webgunearen bidez eta web horretan dauden produktuen bidez; 1.4 puntuan landuko dira.

Ebaluatutako denbora tartean datu berriak gehitu dira; horiei esker, analisiaren dimentsioak areagotu daitezke eta informazioa hedatzeko epeak eta formulak hobetu dira:

a. Genero indarkeriako egoerei emandako arretaren zifrak Bizkaiko lurralde historikoan

- Ebaluatutako laurtekoak, lehenik eta behin, erakutsi du finkatu egin direla aurreko 2013-2016 urte arteko fasean Behatokiaren datuen mapan aplikaturako aldaketak. Datuak biltzeko prozesua finkatu egin da erakundearen bost arlo nagusietan eta definitutako azpiarlotan tematikotik; fase horretan landutako adierazleak handitzea; eta aldi horretan informatzaile gisa gehitu diren iturrien konpromisoa.
- Adierazleen multzoak hazten jarraitu du 2017 eta 2020 artean, eta berrikuntzak datuen tauletan zein analisi agerietan islatu dira. Arlo sozialean Genero Indarkeriaren Biktima diren Adingabeen Familiar Esku Hartzeko Foru Programa

gehitu da, eta desgaitasunaren aldaera eta indarkeria sexualaren datuak gehitu dira halakorik jasotzen ez duten programetan, baliabide bakoitzean emandako informazioa uniformetasunean irabaziz. Esparru judizialean biktima adingabeen segurtasun eta babeserako neurri judizialen datuak ere gehitu dira. Atal polizialean arriskuaren polizia balorazio eta polizia espedienteekin lotutako adierazleak areagotu dira.

- 2017an informazioa hedatzeko epeak hobetu ziren, eta urteko bigarren hiruhilekoan "Zifrak" urteko txostenaren aurrerapena argitaratu zen. Txosten modalitate berriak Behatokiaren agiri funtsak areagotuko ditu, eta urteko serieari eman zion hasiera, 2017-2020 aldi osoan mantendu zena, hobekuntzak gehituz eta ondoz ondoko argitalpenetan informazioa areagotuz.
- Barne mailan ahalegina ere egin da informazioa hedatzeko epeak hobetzeko; 2019tik urteko lehen bileran Osoko Bilkurari jakinarazten zaizkio aurreko ekitaldiko zifren emaitza nagusiak.
- 2018tik, informaziora sarbidea izatea errazten jarraitze aldera, Zifren txostenaren laburpena eskaintzen da, dokumentu independentea duen formatuarekin, zuzenean sar daiteke bertara, txosten osoa deskargatu beharrik gabe.
- 2019an elementu berriak txertatu ziren datuen taulen liburuetan, eta horrek agiriak errazago erabiltzea ekarri du.
- 2019an arretako seihileko zifren emaitzekin agiri bat prestatu zen, modu berritzailean, 2011. urtetik bilakaeraren ikuspegia ere jasoz eta Behatokiaren Buletina hedapen formatu modura erabiliz. Lan hori egiteko Behatokiak bildutako datuak sistematizatzeko prozesua garatu behar izan da, seihileko bilketa martxan jarri zenetik; izan ere, une horretara arte seihileko datuak ez ziren helburu horrekin erabili.

b. Udalen Informazio Orria

Udalen Informazio Orria, lehenago azaldu dugun moduan, Behatokiak prestatzen duen txosten modalitate bat da, datuak sei hilero batzeko esparruan; prozesu hori tokiko

entitateekin garatzen da (udalerriak eta mankomunitateak), baliabide propioak badituzte emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.

Datu ugari biltzen dira bertan: kasuan kasuko udalerrri/mankomunitatearen programei buruzko datu zehatzak, udalez gaindiko zerbitzu publikoenak, udalerriko populazioari lotutakoak, baita lurralde mailako emaitzak ere. Datu ugari dira, urte horretakoak eta bilakaeraren ikuspegiarekin; udal mailan hausnarketa eta autodiagnostikoa egitea sustatu eta horretan laguntzea du xede:

- Tarte horretan atal berri bat gehitu da, Genero Indarkeriaren Biktima diren Adingabeen Familian Esku Hartzeko Foru Programako datuekin.

c. Udalerrien, mankomunitateen eta foru baliabideen gida:

Dokumentuaren edukia 2017an handitu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Genero Indarkeriaren Biktima diren Adingabeen Familian Esku Hartzeko Foru Programari buruzko atal berri batekin.

d. Baliabideen Atlasa

Baliabideen Atlasak 16 mapa biltzen ditu, eta bertan Bizkaian genero indarkeriako egoerei arreta emateko baliabideen estaldura irudikatu da, udalerrien eta/edo gizarte zerbitzuen mankomunitateen arabera, esparru sozial, polizial eta judizialean, baita erakunde bakoitzak eremu bakoitzean aplikatutako berdintasun politikak ere.

- Tresna hau 2019an aldatu zen, mapak ikusi ahal izateko Bizkaiko gizarte zerbitzuen zonifikazio geografikoarekin bat etorriz, eta aukera emanaz aukeraketa sektore eta eskualde mailen arabera egiteko.

e. Genero indarkeriaren aurkako praktika, ekimen eta esperientzien IV. Eskuliburua

- 2018an Genero indarkeriaren aurkako praktika, ekimen eta esperientzien Eskuliburuaren edizio berria prestatu eta argitaratu zen, serie horretako laugarrena. Behatokiaren funtzioetako bat betetze aldera, parte hartzeari dagokiona, beste erakunde batzuekin harremanetan jarraitzeari dagokiona, eta beste Administrazio batzuen jardunbide onen berri izateari dagokiona.

Hala egiteko, aurrekoetan bezala, gomendioen txostenaren azken edizioa hartu da erreferentzia gisa; kasu honetan, *Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan Bizkaiko lurralde historikoan erakundeen jarduna hobetzeko gomendio eta proposamenei buruzko III. Txostena*, 2016an egindakoa.

f. Gomendioen III. Txostenaren jarraipen txostena (2016)

2017-2020 aldian gomendioak emateko arloan Behatokiak izan duen lan ildoak 2016an egindako *Hobetzeko gomendio eta proposamenei buruzko III. Txostenaren* inguruan garatu zen; txostena Behatokiaren lantalde teknikoaren foroan jorratu zen.

- 2017an III. txostenaren bertsio inprimatua eta elektronikoa argitaratu eta hedatu ziren.
- 2020an bertan bildutako gomendioen jarraipen prozesua egin zen, eta horren emaitza 2020ko abenduko dokumentuan jaso zen, *Hobetzeko gomendio eta proposamenei buruzko III. Txostenaren garapen jarraipenaren Txostena* izenburupean. 2012ko aurreko jarraipen txostenean bezalaxe, helburua izan da erakundeen jarduketan aurrerapenari buruzko ezagutza orokorra lortzea, azken zortzi urteetan izandako garapenaz, esparru eta maila guztietarako 2016ko III. Txostenean plazaratutako gomendioen bidez planteatutako beharrezanez dagokienez.

Modu irekian, kualitatiboan eta parte hartzailean heldu zaio, proposamenen izaera heterogeneoaren arabera ezagutza global eta erabilgarria lortu ahal izateko eskumen, zabalpen, zeharkakotasun esparruetan eta zehaztasun maila desberdinekin.

Jarraipen txosten honekin gaur egungo egoerari buruzko irudi panoramikoa eman nahi izan zaie erakundeei, hainbat alderditan egindako aurrerapenekin, landutako gaiekin eta oraindik are gehiago garatu beharreko edo jorratzeke dauden gaiekin.

g. Hiruhileko buletinak

Buletina beste errealitate eta ikuspegi batzuen gaineko hausnarketa sustatzeko, handitzeko eta ezagutzera emateko espazio bat da, legean jasotako indarkeria motekin gizarte zerbitzuen esku hartzeari heldzeaz gain. Hala aurkeztu dira indarkeria matxistaren beste mota batzuen alderdiak, herritarren sektore eta sektore sozialetan izandako inpaktua eta esku hartzeen maila eta esparruetan izandako inpaktua.

- 2017 eta 2020 artean argitaratutako aleetan hainbat profesional eta kargu nabarmenek hartu dute parte, elkarrizketa bidez, besteak beste esparru judizialekoak, elkargo profesionaletakoak, unibertsitatekoa edo sorkuntza artistikokoa (zinema, literatura, eta abar), besteak beste, indarkeria matxistaren alderdiak eta arazoak lantzeko.
- Horrez gain, elkarrizketen bidez, 2017ko aleetan "Sarean" atalean hainbat udal eta mankomunitateko gizarte zerbitzuen talde teknikoen testigantzak ere jaso dira.
- 2018an atal hori berritu egin zen, eta harrezkero "Beste behatokiekin sarean" izena du; bidenabar, antzeko behatokiaren lanaren berri izan eta hedapena emateari erreparatu dio, datu bilketaren garrantzia eta beharrianaren gaineko sentsibilizazioan lagunduz.
- Buletinaren historian lehen aldiz ale monografiko bat argitaratu zen 2019an; genero indarkeriaren eta familian bizi diren animaliei tratu txarrak ematearen arteko loturari eta indarkeria horren inplikazioei eskainitako alea izan zen. Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeaz gain, ale hori ingelesez ere plazaratu zen.

Erakunde arteko lankidetzak eta kolaborazioaren esparruan, hobeto ezagutu eta hedatzeko, aldi horretan honako jarduketak hauek garatu dira:

- 2017an **Genero Berdintasunaren Europako Institutuarekin** (EIGE).

Ekainean Behatokiak, entitate gonbidatu gisa, bi eguneko lan topaketa batean hartu zuen parte, Europar Batzordearen mendeko Genero Berdintasunaren Europako Institutuak (EIGE) deituta. Foro horretan parte hartu zuen tokiko organismo bakarra izan zen Behatokia; topaketa Europar Batasunean **emakumeen aurkako indarkeria arloko administrazio datuen erregistroa hobetu eta homogeneizatzeko helburuarekin egin zen.**

Gainerako 16 parte hartzaileak, Behatokiaz eta EIGEz gain, Espainiako eta Portugalgo estatu mailako entitateen eta emakumeei zuzendutako indarkeriaren aurkako borrokaren koordinatzaileen ordezkariak ziren, batez ere esparru polizial eta

judizialekoak, Madril, Andaluzia eta Kataluniako emakumeen institutuen ordezkariak eta Zaragozako Unibertsitatearen ordezkariak.

Ondoren, unibertsitate horrek lantalde berari eusteko ahaleginaren lidergoa hartu zuen, eta Behatokitik agiri informazioa eman zen, foroaren proposamenari dagokionez. 45. buletinean argitaratutako artikulu batean topaketa horren berri eman zen.

Prozesu horren informazioarekin, 2018an EIGEk *"Recommendations to improve data collection on intimate partner violence by the police and justice sectors: Spain"* koadernoan argitaratu zuen.

- 2019an **Emakumeentzako Aterpeen Sare Globalarekin** (GNWS).

GNWSeK antolatutako Emakumeentzako Aterpeen Munduko IV. Biltzarra egitearen haritik, genero indarkeriaren eta animaliei tratu txarrak ematearen arteko loturari buruzko informazioa partekatu zen entitate horrekin, eta Behatokitik 52. Buletineko edukia igorri zitzaien, ingelesez, bertan jaso baitziren genero indarkeriaren biktimei harrera egiteko Biltzarrean planteatu ziren beharrianen erantzunak, hain zuzen ere biktimak animaliekin bizi direnean sortzen diren beharrianenak, egoera hori gero eta ohikoagoa baita.

1.4. EZAGUTZAREN KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

Hobetzeko proposamen eta gomendio gehienek atal honekin dute lotura. Erronkak hobekuntza eta gomendioetan islatutakoen laburpena dira, horregatik ez dira jaso.

Ardatz honen helburu nagusia da Behatokia elkartzeko eta informatzeko puntu gisa finkatzeko jarduerak barne hartzea, baterako analisia indartuz eta informazioa hedatzeko sistemak gaitzea sustatuz.

Aurreko ebaluazioan 2017-2020 aldirako planteatutako **hobetzeko elementuak** bi dira:

- Webgunea eguneratzeko barne prozesua azkartzea.
- Behatokia ikusaraztea erakundearen webgunean.
- Gomendioen txostena eta jardunbide onen eskuliburua hedatzea.

- Pareko beste erakunde/administrazio batzuekin harremanak izan eta parte hartzea.

Honako gomendio hauek jaso ziren:

- Behatokiaren hedapena egitea "lehen bisita" lortzeko.
- Behatokiaren webgunea erakundeen, profesionalen eta herritarren artean ezagutzea eta erabiltzea indartzea.
- Hobekuntza eta jarraipen proposamen eta gomendioen txostena hedatzeko ekintzak (informazio eskaintza zehatza erakundeei).
- Behatokiaren posizioa indartzen eta finkatzen jarraitzea, Bizkaiko lurralde historikoko erreferentziazko organismo modura emakumeen kontrako indarkeria egoerak aztertze arloan.

Behatokiaren eta bere jardunean eskuratutako ezagutzaren hedapena egitea. Behatokiaren **webgunea** eta, bereziki, **buletina** izan dira Behatokiak hedapen lanerako izan dituen tresna nagusiak. Tarte horretan hainbat jarduketa garatu dira:

- 2017an buletinaren aleak planifikatu ziren, hain zuzen ere den-denetan Behatokian egindako txostenetako edukia jasotzeko, atal batean edo batzuetan, ausaz edo ingurune sozial edo erakundearen jardunaren arabera, aurreko ebaluazioen eskaera eta gomendioei erantzunez:
 - **Hobetzekok proposamenak eta gomendioak, III.** Txostenean jasotakoak, aldi berean esparru tematikoekin, berrikuntzekin edo intereseko ekimenekin lotuz.
 - Eta, aldi berean baina maiztasun gutxiagoz, eskuragarri egon den atalaren arabera, **"Prebentzioan eta arretan genero indarkeriaren aurkako praktika, ekimen eta esperientzien IV. Eskuliburua "** dokumentuan jasotako ekimenak eta proiektuak, 2018an egindakoa; bertan, Europatik kanpoko, nazioarteko, Europako, estatuko, erkidegoko, foru eta toki mailako administrazio publiko, elkarte eta entitate pribatuek bi esparrutan ezarritako jarduerak bildu ziren: Prebentzioa (azpiesparruak: hezkuntza, sentsibilizazioa eta komunikabideak eta publizitatea) eta Arreta (azpiesparruak: arreta

zerbitzuak, prestakuntza emakumeen aurkako indarkeria arloko profesionalei eta erakundeen arteko koordinazioa).

- Buletinaren banaketa eta kolaborazio zerrenda luzatzen jarraitu dugu entitate publiko eta pribatu berrietara zabalduz, baita autonomia erkidegoko, beste erkidego batzuetako eta nazioarte mailako hirugarren sektore eta profesionalak barne hartuz. Besteak beste, 2018an Osasun Arretako Zuzendariordetzak berriaz eskatuta, Osakidetza zerbitzuetan eta hainbat erakundetan genero indarkeriari heltzeko pertsona erreferenteek ere bat egin zuten.
- Horrekin batera, webgunean bildutako gainerako tresnetan mantentze, eguneratze eta hobekuntza lanak egiten jarraitu da: Indarkeriaren arloan dauden Baliabideen Mapa, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Baliabideen Atlas, eta dokumentuen on-line kudeatzailea, indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuei buruzko informazioarekin, lurraldeko tokiko erakunde bakoitzak jarritakoa. Arlo sozial, polizial, judizial, osasun eta elkarten arloko baliabideak jaso dira, genero indarkeriako egoerei arreta jartzean inplikaturakoa.
- 2020an, **webgunea erabat eraldatu zen**, edukiak modernizatuz, berrantolatuz, aldatuz eta handituz, ikusgarriago, atseginago, irisgarriago, ulergarriago eta gaurkotuago egote aldera; informazioari tratamendu desberdina eman zitzaion, txosten eta azterlanetan garatutako konplexuenetik datu gaurkotuen eta sinplifikatuetara iritsi arte.

Webguneak izan dituen bisita kopuruak nabarmen egin du gora sortu zenetik, ibilbide osoan zehar. Eskuragarri ditugun datuen arabera, puntu gorena 2015ean lortu zen, milioi erdi bistaratze baino gehiagorekin. Ebaluatutako denbora tarteari dagokionez 2017. urteari buruzko informazioa baino ez dago: 333.878 bistaratze; aurreko urteetakoa baino zifra baxuagoa da; kontuan hartu behar da 2017an izandako gertaera batek eragotzi egin zuela webgunera sarbidea izatea; bidenabar, urte horretan Behatokira sartzeko sarbide bakarra zegoen foru atarian, eta aurreko aldian, berriz, hainbat aukera zeuden. Hala ere, 2017ko emaitzak 2008ko (datuak eman zituen lehen urtea) bistaratzeen hirukoitza gainditzen du.

Ohikoa denez, 2017an kontsulta jardun handiena ere gertatu zen, eta nazioarteko egutegiko bi une esanguratsuen inguruan gertatu zen: Azaroaren 25a eta martxoaren 8a.

Lankidetzaren eta harremana beste entitate batzuekin. Aurreko atalean aipatutako EIGE eta GNWSen parte hartzeaz gain, komunikazio foro izateko lanarekin jarraitu da, erantzuna emanez eskatutako informazio eskaera orori, hainbat eragilerengandik iritsitakoak, kasu askotan administrazio publikotik.

- Buletineko "Sarean" atalean 2018tik izaera antzekoa eta hurbilekoa duten beste entitate batzuei parte hartzeko eskaintza ematen da, erakundearen arteko harremana sustatzeko eta beste behatoki batzuen jardueren inguruan ikasteko.

Hainbat profesionalen kolaborazioa izan dugu; gure artean izan dira, besteak beste, BJKNko Etxeko eta Genero Indarkeriaren Behatokia, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Behatokia, Genero Indarkeriaren Andaluziako Behatokia; Emakumeen kontrako Indarkeriaren Aragoiko Behatokia; Jerezko Udaleko Genero Indarkeriaren Tokiko Behatokia; eta Genero Indarkeriaren Galiziako Behatokia. Atal horretan animaliekiko indarkeriaren behatokiak ere parte hartu du, animalien harrerarako VioPet programa koordinatzen duena, emakume batek genero indarkeria pairatu ondoren harrera baliabide batera jo behar duenean animaliei harrera ematea xedetzat duena.

1.5. BEHATOKIKO PARTE HARTZAILEEI EGINDAKO GALDETEGI BIDEZ LORTUTAKO EMAITZA ETA EDUKIEN ANALISIA

BIZKAIAN INDARKERIA MATXISTAREN BEHATOKIKO PARTE HARTZAILEEI EGINDAKO GALDETEGIEN EMAITZAK
1- OSOKO BILKURA ETA ADIERAZLEETARAKO LANTALDEA
2- WEB BISITARIAK
3- INDARGUNEAK ETA HOBETZEKO ARLOAK

Atal honetan parte hartzaileek erantzundako ebaluazio galdetegiaren analisiaren emaitzak jaso dira, hain justu ere Behatokiaren Osoko Bilkuran (OB) eta Adierazleerako Lantaldean (AL) parte hartzen duten kideenak, baita ebaluazio honetan aztertzen den denbora tartean (2017 urtarrila - 2021 urtarrila) webgunea bisitatu dutenek emandako erantzunak ere.

Lehenik eta behin **Osoko Bilkuran eta Lantaldean erantzundako galdetegiaren emaitzak jaso dira.** Galdetegia gaur egun Behatokiaren Osoko Bilkuran eta Lantaldean parte hartzen duten pertsonen zein aztertutako denbora tartean talde horietako kide izan diren pertsonen zuzendu zaie. Galdetegia jaso duten 49 lagunetik 12k hartu dute parte; horrek esan nahi du lagunaren % 24 osatzen dutela.

Azkenik, Behatokiaren webgunea bisitatu eta ebaluazioan parte hartzeko diseinatutako galdetegi labur bat erantzun duten pertsonak aipatu behar ditugu. Guztira 57 galdetegi jaso dira, aurreko aldi baino 26 gutxiago.

Datuak ehunekoetan jaso dira, grafiko eta tauletan. Horrez gain, lehen, bigarren eta hirugarren ebaluazioari dagokionez balorazioen bilakaera ikusi ahal izateko, komunak diren itemetan, lau ebaluazioen medianak jaso dira.

1- OSOKO BILKURA ETA ADIERAZLEETARAKO LANTALDEA

I- PARTAIDETZARI BURUZKO INTERES-MAILA

II- HELBURUEN BETETZE-MAILA

III- BEHATOKIAREN EGINKIZUNAK

IV- LAN-PROZESUA


V- BEHATOKIAREN KONTSULTA-PRODUKTUAK

VI- BEHATOKIAREN ZABALKUNDEA

VII- BEHATOKIAREN ERAGINA

OSOKO BILKURA ETA ADIERAZLEETARAKO LANTALDEA

Parte hartzaileak 2020



■ Osoko Bilkura

■ Lantaldea


Lehenengo apartatuan osoko bilkurako eta lantaldeko partaideek egindako balorazioen emaitzak jaso dira.

Bi galdetegi diseinatu dira: bata osoko bilkuraosatzen duten pertsonen zuzendutakoa eta bestea Adierazleen Taldeko parte-hartzaileen zuzendutakoa. Bi galdetegiak galdera berberak dituzte, talde bakoitzaren funtzionamendu partikularrari buruzkoak izan ezik; horrenbestez, galderen emaitzak item komunetan multzokatuta aurkezten dira, eta taldeetako bati dagokion itema dagoenean, hala zehazten da.

Ebaluazio honetan, Behatokian parte hartzeko interesari buruzko galderak barne hartu dira. Horrez gain, galdetutako pertsonen erakundean nahiz jarduera profesionalean Behatokiak izan duen eraginari buruz zer pertszeptzio duten galdetu zaie. Gainera, beste bi item gehitu zaizkio osoko bilkuraren eta lantaldearen bileretan lan-prozesuarekin zerikusia duten alderdien betetze-maila baloratzen duen alderdiari.

Lortutako laginari dagokionez, parte-hartzaileen % 17 **Osoko Bilkurako** kideak dira edo izan dira ($n=2$), eta % 83k **lantaldea** osatzen dute edo osatu izan dute ($n=10$).

I- PARTAIDETZARI BURUZKO INTERES-MAILA



MEDIANA	2016	2020
Behatokia parte hartzeak dakartzan hausnarketa espazioak	4,00	4,00
Lortutako informazioa	4,00	4,00
Genero indarkeriaren ezagutzarako ekarpenak eta ikuspegia lan esparruan	3,00	4,00

Inkesta egin duten pertsona gehienek interes handia erakutsi dute Behatokian duten parte-hartzeari dagokionez, eta kontsultatutako alderdiak nahiko interesgarritzat edo oso interesgarritzat jotzen dituzte.


Behatokia parte hartzeak dakartzan hausnarketa-guneek jaso dute interesari dagokion ehunekorik handiena: % 82k oso interesgarritzat jotzen ditu.

Era berean, interesgarritzat hartu dira baita ere *eskuratutako informazioa* (% 64) eta *genero-indarkeria ezagutzeko eta ikuspegi hori lan-esparruan ezartzeko ekarpenak* (% 64).

II- HELBURUEN BETETZE-MAILA

2017-2021 Lanerako Planean planteatutako helburuak eta jarduerak

Helburu eta jardueren berrien betetze-maila 2017-2021 (%)



MEDIANA	2012	2016	2020
UHS indartzea	4,00	4,00	4,50
Datuen bilketa hobetzea	4,00	4,00	4,00
Emaizten ikusgarritasun eta hedapen hobea	4,00	4,00	4,00
Joerak hobeto aztertu eta identifikatzea	4,00	4,00	4,00
Gomendioak hobeto formulatzea	4,00	4,00	4,00

Inkesta bete duten pertsona gehienek aburuz, jardueren eta helburuen betetze maila altua edo oso altua da.

Hobera egitea *emaitzen ikusgarritasun eta hedapen prozesuan, joerak aztertu eta identifikatzen eta gomendioak formulatzeko prozesuan*, horrek du, hain justu ere, lorpen ehunekorik handiena (% 100).

III- BEHATOKIAREN EGITEKOAK


Behatokia eratzeko dekretuan aurreikusitako **eginkizunen betetze-mailari** buruzko balorazioak aurkezteko, aurreko hiru ebaluazioetan egin den bezala, balorazioak lau taldetan sailkatu dira:

G1: Genero-indarkeriaren arloko informazioa biltzearekin lotutako eginkizunak.


G2: Behatokia profesionalen edo administrazioen/erakundeen arteko topaleku eta elkartruke-gune gisa hartzen dutenak.

G3: Behatokia aztergai izatearekin lotuta dauden eginkizunak.


G4: Behatokiaren barne-funtzionamenduari zuzendutako eginkizunak.




MEDIANA	2008	2012	2016	2020
Bizkaiko lurralde historikoan genero indarkeriako egoerei lotutako datuak integratuko dituen aplikazio informatikoa diseinatzea, martxan jartzea eta horri eustea	4,00	4,00	4,00	5,00
Arreta esparruetan eskura dagoen informazioa bildu eta aztertzeko etengabeko organo gisa jokatzeari	4,00	4,00	4,00	5,00
Emakumeen aurkako indarkeria arloko zerbitzuek erabilitako informazio sistemak eta adierazleak hobetzeko gomendioak eta proposamenak formulatzea	4,00	4,00	4,00	5,00



MEDIANA	2008	2012	2016	2020
Pareko beste erakunde batzuekin harremanak izan eta parte hartzea. Beste administrazio batzuek planteatu eta hasitako erreformak eta esperientziak ezagutzea	3,00	4,00	4,00	4,00
Indarkeria egoeren bilakaera eta zabalerari buruzko ebaluazio eta diagnostikoen txosten eta azterlan teknikoak egitea proposatzea	4,00	4,00	4,00	5,00



MEDIANA	2008	2012	2016	2020
Biktimei zuzendutako neurri integralen egokitasuna aztertzea, ondorioak eta efektuak ikertuz eta jardun onen adibideak aztertuz	4,00	4,00	4,00	4,50
Baliabideen eskaintzan hobekuntzak sustatzeko proposamenak eta gomendioak formulatzea eta kasuan kasuko erakundeei helaraztea	4,00	4,00	4,00	5,00
Truke eta komunikazio foro bat eratzea, eta hortik genero indarkeriaren arloan ikerketa taldeen ikerketa eta analisi lana erraztea	4,00	4,00	4,00	4,00



MEDIANA	2008	2012	2016	2020
Behatokiak egindako jarduketan urteko txostena ematea, Batzar Nagusiei horren berri emanez (memoriak)	5,00	4,00	4,00	5,00
Antolaketa eta funtzionamendu araudia prestatzea (Osoko Bilkurako kideek baino ez dute erantzun)	4,00	4,00	4,00	5,00

Oro har, bildutako datuek erakusten dute Behatokiaren eginkizunak, zeinak Behatokia eratzeko Dekretuan jasota dauden, bete egin direla uste duela % 100ak.

Genero-indarkeriaren arloko informazioa biltzearekin lotutako funtzioak (G1) bete egin dira parte-hartzaile guztien aburuz. *Ia gehienek uste dute (% 75), Behatokiak oso ondo bete duela arreta-eremu guztietan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta aztertzeko organo iraunkor gisa duen eginkizuna. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan zerbitzuek erabiltzen dituzten adierazleak eta informazio-sistemak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egiteari dagokionez, % 67k balorazio bera egin du.*

Profesionalen edo administrazioen/erakundeen arteko topalekuaren eta elkartruke-gunearen (G2) eginkizunari dagokionez, % 63k uste du oso egokia izan dela *indarkeria-egoeren zabaltasunari eta bilakaerari buruzko diagnostiko- eta ebaluazio-azterlan eta -txosten teknikoak egiteko lorpena. Bestalde, antzeko beste erakunde batzuekiko harremanei eustearen eta haiekin parte hartzearen inguruko eta beste administrazio batzuek hasitako eta planteatutako esperientzien eta erreformen gaineko ezagutza % 50ekoa da.*

Aztergai izateari dagokionez **(G3)**, % 56k adierazi du oso ondo bete dela *gomendioak eta proposamenak egiteko eginkizuna, baliabideen eskaintzan hobekuntzak sustatzeko eta dagozkien erakundeei helarazteko. % 57aren ustez, komunikaziorako eta elkartrukeko foroa izan da Behatokia, zeinaren bidez genero-indarkeriaren arloko ikerketa-taldeei erraztu egiten zaizkien ikerketa- eta azterketa-lanak. Bestalde, biktimei zuzendutako neurri integralen egokitasunaren analisiak, neurri horiek izan ditzaketen ondorioak ikertuz eta jardunbide egokien adibideak aztertuz izeneko eginkizuna maila handi batean bete dela deritzo % 50ak eta oso maila handian bete dela beste % 50ak.*


Behatokiaren barne-funtzionamenduari dagokionez **(G4)**, ehuneko handi batek (% 78) uste du oso egokia izan dela *jarduketan urteko txostena igortzeko lorpena.*

Jasotako erantzunen medianek aldeak erakusten dituzte aztertutako hamar eginkizunetatik zortzitan, ebaluatutako aurreko aldiarekin alderatuta. Ia guztiak gogobetetze maila altu batetik (4,00) gogobetetze-maila oso altu batera (5,00) igaro dira. Ildo horretatik, *biktimei zuzendutako neurri integralen egokitasunaren analisiak, neurri horiek izan ditzaketen ondorioak ikertuz eta jardunbide egokien adibideak aztertuz* eginkizuna puntu erdi igo da: 4,00 puntutik 4,50 puntura.

IV- LAN-PROZESUA

Apartatu honetan, osoko bilkuraren eta lantaldearen bileretan izandako lan-prozesuari buruzko hainbat alderdi jaso dira.

Helburua **bileren elementu formalak** aztertzea da: deialdia, aktak, dokumentazioa, lanerako edukiak, denboraren antolaketa eta gogobetetze-maila, bai horietako bakoitzari dagokionez, bai (lantaldearen kasuan soilik) idazkaritza teknikoak egindako lanari dagokionez.



MEDIANA	2008	2012	2016	2020
Deialdiak aski denboraz jasotzen dira?	1,00	1,00	1,00	1,00
Hartutako erabakiak aktan islatzen al dira?	1,00	1,00	1,00	1,00
Lanerako dokumentazioa aski denboraz banatzen da?	1,00	1,00	1,00	1,00
Banaturako dokumentazioa erabilgarria da?	1,00	1,00	1,00	1,00
Lan edukiak garrantzitsuak dira?	.-	.-	.-	1,00
Orotara, idazkaritza teknikoak egindako lana egokia da taldearen jardunerako? (ALko kideek baino ez dute erantzun)	.-	.-	.-	1,00

Parte hartzaileek, Osoko Bilkurakoak zein lantaldekoak, lan prozesuari lotutako alderdien betetze mailari buruz egindako ebaluazioa oso positiboa da.

Idazkaritza teknikoak egindako lana taldearen jardunerako egokia den aztertzeari dagokionez, bertan parte hartu dutenek baino erantzun ez dutena, nabarmendu behar da garaturako lana denen ustez egokia izan dela beti.


Medianak konparatzean, azken bi gaiak ebaluazio honetan sartu dira lehen aldiz.

V- BEHATOKIAREN KONTSULTA-PRODUKTUAK

Kalitatearen balorazioa

MEDIANA	Web gunea	Mapa	Atlasa	Dokumentuen kudeatzailea	Zifrak analisiak	Zifrak datuak	Lantaldearen aktak	Osoko Bilkuraren aktak	Intereseko dokumentuak	Buletina	Baliabideen katalogoa	Gomendioak eta proposamenak	Eskuliburua
2008	4,00	5,00	5,00	4,00	-	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	-	-
2012	4,00	5,00	5,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00	4,00
2016	4,00	5,00	5,00	5,00	5,00	5,00	4,00	4,00	4,00	4,00	5,00	4,50	4,00
2020	5,00	5,00	5,00	4,00	5,00	5,00	4,00	4,00	4,50	4,00	5,00	4,50	4,00

Informazioaren kalitatearen balorazioa (%)



Behatokiak hainbat tresna eta/edo baliabide tekniko ditu Behatokiak berak egindako lanaren informazioa emateko: Behatokiaren webgunea, Baliabideen Mapa, Baliabideen Atlas, dokumentuen kudeatzailea, zifren dokumentua, Adierazleerako Lantaldeak eta/edo Osoko Bilkura egindako lanaren informazioa, Behatokiaren buletina eta Foru eta Udal Baliabideen Katalogoa.

Osoko Bilkuran eta Lantaldean parte hartzen duten pertsonen produktuen kalitatea ebaluatu dute, eta galdetu zaie ea haien erakundeetan aipatutako produktuak erabiltzen dituzten pertsonak ote dauden.

Baloraziorik onena lortu duten Behatokiaren produktuen artean nabarmendu behar ditugu Baliabideen Katalogoa eta Atlas: % 70 eta % 60ren ustez, hurrenez hurren, oso kalitatea onekoak dira.

Zifren dokumentua, analisia duen atalean zein datuei buruzko atalean, *oso kalitate onekoa* dela esan dute galdetegia erantzun duten pertsonen % 56k; inork ez du erantzun kalitatea ona edo oso ona baino baxuagoa denik.


Behatokiaren webguneari emandako balorazioa oso positiboa da, % 100ek esan du ona edo oso ona dela, eta ebaluazio honetan nabarmen egin du gora.

Baliabideen Mapari dagokionez, pertsonen % 55en aburuz, kalitatea oso ona da.

Kalitate oneko edo oso oneko balorazioek pertsonen gutxienez % 80 hartu dute.

Medianak aurreko aldian izandako emaitzekin konparatzean, nabarmendu behar da Behatokiaren webgunearen balorazioak hobera egin duela, kalitate *onekoa izatetik oso onekoa izatera; intereseko dokumentuek aurreko aldian baino puntu erdi gehiago jaso dute.*

Erabilpena




EHUNEKOA	2008	2012	2016	2020
Webgunea	% 62	% 80	% 83	% 73
Baliabideen Mapa	% 69	% 70	% 83	% 64
Baliabideen Atlasa	% 62	% 65	% 75	% 64
Dokumentuen kudeatzailea	% 46	% 64	% 67	% 27
Zifrak analisia	% 0	% 73	% 76	% 45
Zifrak datuak	% 0	% 64	% 68	% 45

EHUNEKOA	2008	2012	2016	2020
Intereseko dokumentuak	% 46	% 71	% 68	% 45
Buletina	% 46	% 79	% 70	% 73
Baliabideen katalogoa	% 0	% 68	% 78	% 64
Gomendioak eta proposamenak	% 0	% 69	% 74	% 55
Eskuliburua	% 0	% 59	% 59	% 55

VI- BEHATOKIAREN ZABALKUNDEA

Behatokiak zure erakunde edo elkartean duen hedapenaren intentsitatearen balorazioa



Partaideen iritziz, zabalkundeak jarraitzen du izaten berrikusteko beharrik handiena duen alderdia.

Ezkerreko grafikoan ikus daiteke bai Osoko Bilkuran bai lantaldean parte hartzen duten pertsonen erakundeetan Behatokiaren zabalkundeak izan duen intentsitateari buruz egin den balorazioa. Parte-hartzaileen % 27k uste du bere erakundean Behatokiak izan duen zabalkundeak "nahikoa" izan dela, eta beste % 27k ona dela adierazi du. Hala ere, kontuan izan behar da ia erdiak (% 46) uste duela bere erakundean Behatokiak izan duen zabalkundeak intentsitate txikikoa izan dela.

Hala ere, medianek ez dute alde esanguratsurik erakusten aurreko aldiekin alderatuta.

	2012	2016	2020
MEDIANA	3,00	3,00	3,00

VII- BEHATOKIAREN ERAGINA

Atal honetan Lantaldeko parte hartzaileen erantzunak baino ez dira jaso. Helburua aurreikusitako alderdiek duten inpaktua aztertzea da, ALko kideen erakunde edo elkarteetan zein haien **jardun profesionaletan**.


Erakundean edo elkarteetan izan duen inpaktuaren balorazioa

Kasuan kasuko erakundean izandako inpaktuak balorazio positiboa izan du. Den-denen ustez, emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatearen inguruko ezagutza hobetu egin da oro har, Bizkaian eta kasuan kasuko eskumen esparruan, baita zerbitzu eta baliabideen inguruko ezagutza ere.

Hala, % 89ren aburuz, maila handi edo oso handian hobetu da beste erakunde batzuen lan egiteko moduaren inguruko ezagutza, datuen bilketa eta tratamenduaren sistematizazioa, eta beste esparru edo entitate batzuekin lankidetza eta koordinazioa eta sareak finkatzea.


2020ko MEDIANAK		
Datuen bilketa eta tratamendua sistematizatzea		4,00
Beste esparru eta entitate batzuekin lankidetza - koordinazioa eta sareak finkatzea		4,00
Emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea hobeto ezagutzea:	eskumeneko esparruan	4,00
	Bizkaian	4,00
	orokorrean	4,00
Ezagutza hobetzea:	baliabide eta zerbitzuei buruz	4,00
	beste erakunde batzuen lan egiteko moduei buruz	4,00

Zure erakunde/elkartean antzemandako inpaktuaren maila (1T) (%)



Jardun profesionaletan antzemandako inpaktuaren balorazioa

Jardun profesionaletan antzemandako inpaktuaren maila (2T) (%)



Lanbide-jardueretan hautemandako inpaktu-mailari dagokionez, balorazioa altua edo oso altua da. Guztiek uste dute hobetu egin dela emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatearen ezagutza, bai oro har bai haien eskumenen eremuan; halaber, baliabideei eta zerbitzuei buruzko ezagutzak ere gora egin duela adierazi dute.

% 89k uste du Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari buruzko ezagutza hobetu egin dela maila altu edo oso altuan; era berean, % 88k adierazi du beste erakunde batzuen lan egiteko moduari buruzko ezagutza ere maila berean hobetu dela, eta % 86k uste du, halaber, beste eremu eta erakunde batzuekin sareak eta lankidetzak/koordinazioa ezartzeko eragina maila berekoa izan dela.

Pertsonen % 66k uste du datuak biltzeko eta tratatzeko sistematizazioa ona edo oso ona dela, eta heren batek uste du hala moduzkoa dela.

Medianen joera balio handiko edo oso handiko alderdiak hautematea da.

2020ko MEDIANAK		
Datuen bilketa eta tratamendua sistematizatzea		4,00
Beste esparru eta entitate batzuekin lankidetzak - koordinazioa eta sareak finkatzea		4,00
Emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea hobeto ezagutzea:	dagokion eskumeneko esparruan	5,00
	Bizkaian	4,00
	orokorrean	5,00
	baliabide eta zerbitzuei buruz	5,00
Ezagutza hobetzea:	beste erakunde batzuen lan egiteko moduei buruz	4,00

2- WEBGUNEKO BISITARIAK

I- KONTSULTAK WEBGUNEAN


II- BGIBko KONTSULTA PRODUKTUAK

Atal honetan webguneko bisitarien zuzendutako galdetegiaren analisi datuak bildu dira. Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren (lehenago Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia, BGIB) ibilbidean ebaluatutako azken tarte horretan (2017-2021) 57 lagunek erantzun dute Behatokiaren webgunean jarritako inkesta.

Horrek esan nahi du aurretik ebaluatutako 2013-2017 aldiarekin alderatuta % 31ko beherakada egon dela (n=83), baina 2009-2012 aldiko ebaluazioaren parte hartze zifrak berreskuratu dira, orduan 56 galdetegi erantzun baitziren. Webgunea bisitatu eta inkesta erantzun dutenen % 98 emakumeak izan dira, eta % 63 EAEkoak dira; gehienak (% 54) Bizkaian bizi dira.


I- KONTSULTAK WEBGUNEAN

Behatokiaren webgunea kontsultatzeko maiztasuna




■ Maiz
■ Puntualki
■ Orria bisitatzen dutan lehen aldia da

Hurrengo bisita webgunean



■ Bai ■ Ez ■ Ez dakit ziur

Kontsultaren arrazoia



■ Informazioa biltzeko ■ Jakin-minez ■ Beste batzuk

Webgunea bisitatu duten ia erdiak (% 49) kontsultak egin dituzte modu puntualean. Horrez gain, % 28k maiz kontsultatzen du webgunea, eta % 23 erabiltzaile berriak izan dira, hau da, webgunea lehen aldiz bisitatzen zuten.

Behatokiko webgunean jarritako inkesta erantzun zutenen profil nagusia kontsulta puntualak egiten zituzten emakumeena da, % 68ren ustez berriz ere bisitatuko du galdetegia erantzun eta hurrengo 30 eguneko epean, eta % 20k ez du segurtasunik webgunea berriz ere denbora tarte horretan bisitatuko duen.


Webgunea bisitatzera bultzatu duen kontsultaren arrazoiari dagokionez, % 74tan informazioa biltzeko da, eta % 12ren kasuan, jakin-minez. Azkenik, % 14k beste arrazoi batzuegatik egin du; beste arrazoi batzuen artean, aurretik ebaluatutako aldiekin erkatuta honako hauek nabarmendu behar dira: indarkeria aplikatzen duten pertsonen buruz edo berdintasunaren alde lan egiteko existitzen diren baliabideei buruz eskuragarri dagoen informazioa jakitea.

II- BGIBko KONTSULTA PRODUKTUAK



Behatokiaren produktuei dagokienez, galdetegiak erantzun dituzten pertsonen gehien kontsultatu dituztenak izan dira *Bizkaiko lurralde historikoan genero indarkeriako egoerei emandako arreta zifratu* dokumentua (% 56) eta *Intereseko dokumentuak* dituen atala (% 51).

Interes handia piztu duten beste produktu batzuen artean daude, besteak beste, Foru eta Udalerrien Baliabideen Katalogoa (% 37), Dokumentuen Kudeatzailea (% 34), Baliabideen Mapa (% 29) eta Behatokiaren Buletina (% 27).



Inkestan webguneko hainbat alderdiri buruzko balorazioa eskatu zen: erabilerraztasuna, nabigatzeko abiadura, edukien kalitatea eta aniztasuna, edukiak eguneratzea eta orriaren diseinuaren erakargarritasuna.

Webguneko alderdi teknikoei dagokienez, *deskargatzeko azkartasunak* hartu ditu balorazio on eta oso onen % 68, baita *erabiltzeko erraztasunaren* balorazioak ere (% 67). Bi alderdi horiek, eta *edukien kalitateak* (% 68ren aburuz kalitate onekoa edo oso onekoa da) lortu dituzte baloraziorik onenak.

Edukiei lotutako beste balorazio batzuei dagokienez, edukien aniztasun eta eguneraketak eragindako iritzia oso positiboa da. Bi alderdi horiek erantzun onen edo oso onen % 64 eta % 56 hartzen dute, hurrenez hurren.

Diseinuaren erakargarritasunak lortu du puntuaziorik baxuena, baina inkesta erantzun dutenen % 50ek uste du erakargarria edo oso erakargarria dela. Kontuan hartu behar da balorazio horiek Behatokiak 2020ko azaroan argitaratutako diseinu eta antolaketa berriaren aurretik jaso zirela.

4- INDARGUNEAK ETA HOBETZEKO ESPARRUAK

1- ADIERAZLEETARAKO LANTALDEA ETA OSOKO BILKURA

2- WEB BISITARIAK

ADIERAZLEETARAKO LANTALDEAREN ETA OSOKO BILKURAREN BALORAZIOAK

INDARGUNEAK

- ☒ Interes maila altua Behatokian parte hartzeari dagokionez.
- ☒ Datuak biltzeko urteko prozesuan eratu eta indartu den Udal Harremanetarako Sarea.
- ☒ Behatokiaren funtzioetan zein Behatokiaren lan prozesuei lotutako alderdietan egindako lana oso gogobetegarria izan da.
- ☒ Ezarritako lan dinamikak eta metodologiak egokitzen jo dira informazioa eman behar duten erakunde eta profesionalentzat; eta Behatokira itzultzen den informazioaren analisisa erabilgarria da aurretik eman dutenentzat.
- ☒ Izena aldatzea, genero indarkeriatik indarkeria matxistara, eta webgunearen formatua aldatzea, orain irisgarriagoa eta intuitiboagoa izanik, oso egokitzen jo da.
- ☒ 2017-2021 aldirako proposatutako helburu eta jarduerak berrien betetze maila altua edo oso altua.
- ☒ Webguneko tresnak eguneratzea eta baliabide eta zifren txostenak prestatzea.
- ☒ Bizkaiko lurralde historikoan biktimei arreta ematen erakundeek emandako jarduketak eta baliabide eskuragarriak aztertzeke tresnan kontsultatzea.

- ☑ Erakundeetako informazioa biltzeko tresnak eta sistemak ezagutzea.
- ☑ Baliabideen Katalogoa, Baliabideen Atlas, Arretaren Zifrak dokumentua, Baliabideen Mapa dira baloraziorik onena lortu duten produktuak.
- ☑ Behatokiaren buletina eta webgunea dira irismenik handiena izan duten produktuak Behatokian ordezkartza duten erakundeetako pertsonen artean.
- ☑ Inpaktua positiboa edo oso positiboa da pertsona parte hartzaileen erakunde edo elkarteetan zein haien jardun profesionalen. Emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea hobeto ezagutzen dela nabarmendu da, Bizkaian, eta kasuan kasuko eskumen esparruan. Horrez gain, existitzen diren zerbitzu eta baliabideei buruzko ezagutza ere aurrera egin da.

Banakako ekarpenak

- Bizkaiko lurraldean genero indarkeriaren errealitateari buruzko ezagutza maila, eta horren definizio hobea lortzeko gaitasuna, zerbitzua jasotzen duten pertsonen zein erantzuna emateko eskura dauden programa eta baliabideena.
- Emakumeen aurka etxean aplikatutako indarkeriaren arazoaren ezagutzaz lurralde mailan eman duen dinamismoa eta fenomenoaren bilakaera, erreferente gisa, erakundeen arteko truke foro gisa eta hobetzeko motor gisa eratuz.
- Hainbat erakundek presentzia izatea, ekarpen interesgarriekin, hainbat eragile desberdinekin koordinatzea indartuz.
- Indarkeriari buruzko hausnarketa eta topaketa lekua, ezagutza hobetzea erraztuz eta ikuspegia egokitzeko aukera emanez, jardun eremu bakoitzaren barruan.
- Arazoak Bizkaian duen egoera modu antolatuan eta sistematikoan biltzeko gaitasuna.
- Bizkaian emakumeen aurkako indarkeria matxistaren errealitatean izandako aldaketetara egokitzeko gaitasuna.
- Ahalegina, ekonomikoa zein profesionala, Behatokiaren ibilbide osoan zehar egindakoa, esperientzia hau martxan jarri, konfiguratu eta lurralde mailan, EAEn eta estatuan erreferente bihurtzeko.
- BFaren konpromiso politiko, ekonomiko eta giza konpromisoa argia da, Behatokia babestu, finantzatu eta sustatu baitu erakundearen apustu eta erronka modura.

- Behatokiaren esperientzia motor gisa, datuak bildu eta aztertzekeo sistematika Araba eta Gipuzkoa lurraldeetara eramateko, Emakunderen GSItik, eta informazioaren analisi homogeneoa izateko, autonomia erkidego osoan.
- Berta Díaz Arbesúk egindako lan nekaezin eta garrantzitsua nabarmendu behar da, Behatokiaren bultzatzaile eta koordinatzailea izan zena hasiera-hasieratik, baita idazkaritza teknikoaren laguntza lana ere. Den-denek izandako kualifikazio altua eta une oro erakutsitako kolaborazio estilo lagunkoia erraztu egin dute erakunde arteko lana lan batzorde eta talde guztietan.
- Urtero jasotako informazio estatistikoa ematea. Informazio fidagarria, homogeneoa eta kontrastatua; informazio hori aztertuz ondorioztatu daitezke, lehenik eta behin, tratu txarren biktimei emandako arretaren irudikapen orokorra eta, bigarrenik, erakundearen erantzun efiziente eta egokia behar duten programa, profil eta beharrezanaren bilakaera markatzen duten joeren datuak.
- Esparru sozialeko erakundeetako profesionalen lan agenden barruan datuak biltzeak duen garrantziaz kontzientziatzea.
- Gizarte zerbitzuen esparruan antzemandako zailtasunen analisia, baliatutako erregistroak hobetzen lagunduz.
- Datu bilketa sistematizatzea, informazioa biltzeko fitxa informatikoa ezarri eta oinarritzeko adierazleak finkatuz horietan prozesu hori aldizka garatzeko.
- Datuak biltzeko prozesuaren bilakaera; azkartasuna eta koordinazioa hobetu egin da. Horri esker, urtero txostenetan islatutako errealitatearen ezagutzak aurrera egin du, edukien sakontasun eta aberastasunean.
- Maila profesionalean: informatzaileen sareak garatzea, informazioa bildu eta hedatzea indartzen duena, baita arazoaren eta lurralde mailan garatutako jarduketaren berri izatea ere; horrekin, erakunde arteko koordinazioa eta kolaborazioa indartuko da.

ADIERAZLEETARAKO LANTALDEAREN ETA OSOKO BILKURAREN BALORAZIOAK

HOBETU BEHARREKO ELEMENTUAK

- ☑ Antzeko beste administrazio batzuekin harremanak izan eta horietan parte hartzeko beharrezana, baita beste administrazio batzuek planteatu eta hasitako erreformak eta esperientziak ezagutzeko ere.
- ☑ Behatokiaren lana indartzea, komunikazio eta truke foro gisa, esparru berean lan egiten duten antzeko erakunde eta organismo batzuekin ezagutza trukatzeko eta parte hartzea.
- ☑ Gaur egungo lan ildoari eustea eta Behatokiaren eta biktimei arreta ematen Bizkaiko lurralde historikoan lan egiten duten erakunde eta eragileekin dagoen kolaborazioa indartzea.
- ☑ Etxe barruan emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntza eta dibulgazioko jarduera eta jardunaldietan parte hartzea.
- ☑ Behatokiak egiten duen lanaren hedapena sustatu beharra, pertsona parte hartzaileen erakundeetan eta/edo elkarteetan, zein Osoko Bilkuran, zein Adierazleetarako Lantaldean.
- ☑ Behatokiaren buletinaren hedapena indartzea.

Banakako ekarpenak

- Erakunde arteko lankidetzak eta kolaborazioa are gehiago indartu behar dira: informazioa helaraztea –datuak biltzeko prozesua– orain bezain azkarra izan behar da, eta hobetu egin behar da prozesuei eta edukiei dagokienez; deitutako bileretan Adierazleetarako Lantaldeko kideek egindako lana, betebeharra eta parte hartzea erraztu eta lagundu egin behar da haien erreferentziako erakundeetatik.
- Erakundeen konpromisoa modu biziagoan gauzatzea lortu behar da. Bereziki osasunaren esparruan, jarduketak zehatz eta eraginkorrekin, antzematea hobetzeko, datuen erregistroa eta erakundeen artean bateragarriak izatea, baita gainerako esparruekiko koordinazioa ere. Gaur egun datuak zuzenean Osakidetzak ematen ditu, eta ez Osasun Sailak; ematen den informazioa ez da nahikotzat jo.

- Bilerak maizago antolatu behar dira, eta landu beharreko alderdi gehiagorekin. Batzuetan oso gai zehatzak lantzen dira, ziurrenik beste espazio batzuk ere behar dituztenak eta soilik Adierazleetarako Lantaldeko kide batzuei eragiten dietenak, ez osotasunari.
- Behatokiaren ezagutza, egindako lana eta lortutako lorpen garrantzitsuak Bizkaiko gizartean hedatu behar dira, eta genero indarkeriaren egoeren aurkako borrokan erakundea dagokion erreferentziazko rolean jarri behar da.
- Webgune hau profesionalen artean ezagutzea (bereziki esparru sozialean) areagotu egin da; hala ere, oraindik ez da aski ezaguna gizarte esparrutik kanpoko erakunde eta profesionalen artean, ezta populazioaren artean ere ez. Horregatik, ezinbestekoa da erabilera indartzea eta webgunea hedatzea eta sustatzea, webgunearen diseinuan eta mantentze lanetan egindako ahaleginari etekina ateratzeko.
- Webgunearen informazioa ona den arren, zenbait alderdi eguneratu egin behar dira (zenbait txosten edo prebentzioaren atala).
- Ebaluazioaren galdetegia: Behatokiko Adierazleetarako Lantaldearen koordinatzailearen lana ebaluatu ahal izateko espazio baten falta nabari da: figura hori ezinbestekotzat jo da taldearen kohesiorako, taldeari emandako funtzioak garatu eta koordinatzeko eta administrazio idazkaritza eta idazkaritza teknikoarekin kolaboratzeko, lanetan lidergo argirik ez badago, lanen jarraipena egiten ez bada eta lan koordinaturik ez badago erakundearen eta entitate emailearen artean, nekez iritsiko dira lorpenak. Horrez gain, galdetegiak dituen galderak asko, zailak eta batzuk elkarren oso antzekoak dira.

GOMENDIOAK - (Banakako ekarpenak)

- UHSri eustea eta indartzea integratzen duten erakunde, profesional eta eragile sozialekin; izan ere, garatu beharreko analisiaren oinarria eratzen du, biktimei arreta emateko jarduketan ezagutzatik abiatuz. Eta, aldi berean, Behatokiaren lana dagokion entitate barruan hedatzeko potentzialtasuna ere eskaintzen du, eta bertan prestatzen diren produktu eta txostenak erabilgarri izatea. Horrez gain, Behatokia integratzen duten profesionalen lana garatzeko tresna erabilgarriak ere baditu.
- Erakunde guztiek partekatuko duten esparru terminologiko argia izatea, indarkeria matxistaren arloan kontzeptuak zehaztuko dituen, aztertuko diren adierazleak definitze aldera. Bidean, informazio bilketa errazteko erakunde arteko akordioaren esparruan egin beharko litzateke lan, datuak erregistratzeko zein bideratzeko balioko lukeen fitxa sozial baten ereduarekin. Eredu hori adostu eta partekatu egin behar da biktimei arreta ematen lan egiten duten erakundeen artean. Hala, Bizkaian gaur egun egiten diren datu bilketen bi prozesuak koordinatu ahalko lirateke, bikoiztasunak saihestuz.
- Aldaketa estrategiko berriari heltzea, arreta fokua indarkeria matxistara hedatzeak dakarren ikuspegi berritik, estrategia inklusibo batetik, gaur egun egiten diren lanak hobetzen eta lan horien emaitzak hobetzen aurrera egitea ahalbidetuz; hala, aurreko ibilbidearekin haustea saihestu ahalko da.
- Estrategia berriak oinarritzat hartu behar du Bizkaian eta EAEn lan egiten duten entitate eta eragileekin lankidetzak eta koordinazioa areagotzea - bereziki Emakundeko GSIekin-, foru Behatokiarekin duen kolaborazioa lortuz eta modu positiboan indartuz, eta trukerako foro gisa eratuz.
- Behatokia bideratutako aurrekontua areagotzea, gaur egungo produktuak garatzen, indartzen eta hobetzen jarraitzeko aukera izan dezan, eta beharrezkotzat joko diren lan berri haiei heltzeko.
- Behatokiak azken urteetan izan dituen lan ildo, helburu eta funtzioei jarraitutasuna ematea, genero indarkeriari buruzko datuek eta datu horiek islatutako errealitateak izandako bilakaera epe luzean aztertu ahalko dela bermatzeko.

WEBGUNEKO BISITARIAK (gehienak literalak)

INDARGUNEAK

- ☑ Arretaren Zifrak dokumentua eta intereseko dokumentuak izan dira gehien kontsultatu diren produktuak.
- Dokumentu ugari eta egiten dituen azterlanen bolumena. Baliabide guztiak sailkatuta eta arazoan esku hartzeko testuingurura egokituta.
- Ematen dituen gai berritzaileei buruzko informazioa.
- Jendearen esku jartzen duen informazioaren kalitatea. Informazioaren egiazkotasuna eta seriotasuna nabarmenduz.
- Datu bilketarako lana, zorrotza.
- Datuen argitasuna.
- Emakumeen aurkako genero indarkeria eta indarkeria matxistari heltzean lan informatibo zein ebaluatzaileari dagokion konpromisoa eta garrantzia.
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztien kontra borrokatzeko interesa.
- Existitzen den indarkeria, bizirik atera diren emakumeak eta indarkeria matxistaren biktimak ikusarazteko eta entzunarazteko gaitasuna.
- Agenda feminista aplikatzea.
- Pertsona bisitariak fidelizatzea.
- Behatokiaren figura informazioa bilatzeko iturri gisa.

HOBETU BEHARREKO ELEMENTUAK

- ☑ Galdetegi batzuetan nabarmendu da ez daudela ados buletinean erakundeetakoak ez diren argitalpenen inguruko etengabeko erreferentziak sartzearekin, joera ideologiko argia baitute.
- ☑ Buletineko "Ikuspegiak" atalean joera feminista eta berdinzaileekin bat datozen erreferentzia eta kolaborazio gehiagori tarte egitea.
- Indarkeria aplikatzen duten eta zigor sisteman ez dauden pertsonekin egiten den lanari buruzko datuak txertatzea. Eskuragarri dauden prebentzio programa eta jarduketari buruzko informazioa, gertaera gertatu aurreko unerako, baita horien eraginkortasuna ere.

2. BEHATOKIAREN EBALUAZIOA 2004-2020

2.1. EBALUAZIOAREN PLANTEAMENDUA

Behatokiaren lehenengo lau urteen ondoren, Behatokia martxan jartzeko fasea bukatu zen, eta finkatzeko prozesua jarri zen martxan, genero indarkeriaren ezagutza eta analisi arloan erreferente bihurtze aldera.

Horretarako, Behatokiak helburu zehatz gisa ezarri zuen informazio objektiboa, fidagarria eta konparagarria lortzea, genero indarkeriaren fenomenoaren egoerari eta bilakaerari buruzkoa, erakundearen erantzunari dagokionez.

Erabakiak hartzearen zerbitzupean jarritako helburu estrategikoarekin, informazio baliagarria igorri dio BFAko Gizarte Ekintzako Sailari, eta 2012tik, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailari, eta horrenbestez, Behatokiaosatzen duten erakunde guztiei, baita, oro har, arlo horretako inguru profesionalari ere.

Bigarren aldia hasi zenetik, Behatokiak honako helburu hauetara bideratu du bere jarduna:

- Egitura, metodologia eta produktuak finaktzea; lortutako lorpenak finkatzea eta garapenean sakontzea, etengabe hobetzeko ikuspegitik, proiektu edo estrategia berriei aurre egin baino lehen.
- Bizkaiko lurralde historikoan etxe inguruan emakumeen kontrako indarkeriaren arloan erreferentziazko organo gisa duen posizioa indartzea eta finkatzea, kontsultako organo espezializatu modura.

17 urtez lanean egonik Behatokiaren hainbat alderdi eta esparrutan ibilbidea eta emaitzak ebaluatzeko, antzeko prozesuen eredu edo tresna egokiak bilatu dira. GBI eredu¹, indarkeria behatokien heldutasunari lotutakoa, 2014an egindakoa, existitzen den prozesu bakanetakoa da, nahiz eta nagusiki delituen behatokiak aztertzerabideratu den; neurri handi batean adierazle egokiei erantzuten die, balorazio

¹ Srur, J. (ed.), *Qué observan los que observan el delito*, Inter-American Development Bank, 2014
<http://www.iadb.org>

konparatiboa emateko Indarkeria Matxistako Behatokitako azterketa nabarmenen esparruei dagokienez.

Aipatutako ereduak Behatokiaren gai zehatzerako dituen gabeziak osatu dira Genero Indarkeriaren Behatokiaren inguruko Azterketa eta Hausnarketa Mintegiaren esparruan identifikatutako adierazleen erantzunarekin, bertan emakumeen aurkako indarkerian eraginaren jarraipena egin edo zenbatzea ahalbidetzen duten mekanismoak aztertu baitziren, eta ondorioak *Observando Observatorios* jardunaldian azaldu ziren, 2010ean. Gai horiek hurrengo 23.3 atalean landuko dira, eta hirugarren sektoreko behatokitarako adierazle orokorreki dagozkie, baita gai bateko adierazle zehatzei ere, esaterako *emakumeen elkarteek parte hartzea edo ez, informatzaileen sarea sortzea edo genero indarkeriaren kausak, ondorioak eta efektuak aztertzea*.

2.2. BEHATOKIAREN HELDUTASUNA GBI EREDUAREN ARABERA

Ereduak lau adierazle nagusi ditu:

1) ERAKUNDE GAITASUNA

2) ARLOKO EKINTZA EREMUA ETA ALDAEREN MULTZOA

3) INTZIDENTZIA

4) IRAUNKORTASUNA

Horietako bakoitzak aldagai kopuru bat dauka, lau eta sei aldagairen artekoa, eta bakoitzari lau heldutasun maila ematen zaizkio, Behatokiaren errealitatearekin gehien identifikatzen diren erantzunen arabera.

Jarraian analisi eremu bakoitzeko taula bat ageri da: Horietako bakoitzean, Behatokiari dagokion mailaren taula berdez markatuta dago, eta, jarraian, ekarpen edo ñabardura osagarriak azaldu dira, Behatokiaren errealitatea neurri handiagoan zehazteko.

1) ERAKUNDE GAITASUNA				
ALDAGAIK	0. maila-Hasiberria	1. maila-Oinarrizkoa	2. maila-Bitartekoa	3. maila-Aurreratua/Finkatua
1.1. Estrategia planifikatzeko prozesua. Egutegiko urtea hastean egin ohi da.	Ez da egin.	Urte batean egin zen (behin), baina emaitzak ez daude eskuragarri (ez daude eskuragarri egiaztatzeko baliabide modura).	- Urte batean egin zen (behin), eta emaitzak eskuragarri daude, Edo: -Urte batean baino gehiagotan egin da (hainbat aldiz) baina emaitzak ez daude eskuragarri (ez daude eskuragarri egiaztatzeko baliabide modura).	Urte batean baino gehiagotan egin zen (hainbat aldiz), eta emaitzak eskuragarri daude.
1.2. Erakunde ebaluazioko prozesua, denbora tarte bateko lorpenak eta prozesuak neurtzen dituenak.	Ez da egin.	Urte batean egin zen (behin), baina emaitzak ez daude eskuragarri (ez daude eskuragarri egiaztatzeko baliabide modura)	Urte batean egin zen (behin), eta emaitzak eskuragarri daude, Edo: Urte batean baino gehiagotan egin da (hainbat aldiz) baina emaitzak ez daude eskuragarri (ez daude eskuragarri egiaztatzeko baliabide modura).	Hainbat aldiz egin zen eta emaitzak eskuragarri daude.
1.3. Giza baliabideak. Behatokiko lantaldearen profesionalizazio maila eta diziplina aniztasuna.	- Ez dakigu lantaldearen profesionalizazio maila zein den. -Lantaldeak diziplina bakarra betetzen du.	-Lantaldea gutxienez teknikari batek osatzen du. Edo: -Lantaldeak bi diziplina betetzen ditu.	-Lantaldea gutxienez profesional batek osatzen du. Edo: -Lantaldeak hiru diziplina betetzen ditu.	Lantaldea gutxienez graduondokoa duen profesional batek osatzen du. Lantaldeak lau diziplina edo gehiago betetzen ditu.

1.4. Baliabide teknologikoak (sistemak) Hardware ekipoak erabilgarri izatea eta Behatokiko software programen erabilgarritasuna eta konplexutasuna.	Ez dauka hardware ekiporik, ezta datuen prozesamendurako ekiporik.	Hardware ekipo bat dauka, eta datuen prozesamendurako oinarritzko programa. (Adib. Excel).	Hardware ekipo batzuk ditu (hainbat), eta datuen prozesamendurako hainbat programa aurreratu (STATA, SPSS, dynamic cube, eta abar).	Hardware ekipo batzuk ditu (hainbat), eta datuen prozesamendurako programa aurreratuak (R, STATA, SPSS, dynamic cube, eta abar) eta mapeorako (georeferentziazioa) programak (Art Gis, Mapinfo, eta abar) edo beste batzuk.
1.5. Baliabide finantzarioak. Aski baliabide finantzario Behatokiak lan egiten aurrera egin ahal izateko eta lorpenak eskuratu ahal izateko.	Ez dauka aurrekontu partidarik eta ez da aurrekontuari buruzko informaziorik eman.	Ez dauka aurrekontu partidarik eta ez da aurrekontuari buruzko informaziorik eman; ez da aski Behatokiak lanean jarraitu ahal izateko.	Badauka aurrekontu partida eta aurrekontuari buruzko informazioa ematen du, baina ez da aski Behatokiak lanean jarraitu ahal izateko.	Badauka aurrekontu partida eta aurrekontuari buruzko informazioa ematen du; aski da Behatokiak lanean jarraitu ahal izateko.

Behatokiak maila finkatua du, argi dagoenez, 1.1 aldagaian, Plangintza estrategikoko prozesua; 1.2 aldagaian, Erakunde ebaluazioko prozesua; 1.3. aldagaian, Giza baliabideak eta 1.5 aldagaian, Baliabide finantzarioak. Horrez gain, faktore zehatz bat ere gehitu beharko litzateke, erakunde gaitasuna indartzen duena, hain zuzen ere jatorria Bizkaiko Batzar Nagusietan izatea eta, ondoren, dekretu bidez sortzea.

1.4ri dagokionez. Baliabide teknologikoak, hainbat hardware ekipo izan arren, eta dagozkion jarduerak egiteko beste programa aurreratu batzuk erabiltzen dituen arren, oinarritzko mailan dago; izan ere, eskuragarritasuna alda daiteke, Idazkaritza Teknikoak jartzen dituen baliabideen arabera.

2) ARLOKO EKINTZA EREMUA ETA ALDAEREN MULTZOA

ALDAGAIK	0. maila-Hasiberria	1. maila-Oinarrizkoa	2. maila-Bitartekoa	3. maila-Aurreratua/Finkatua
2.1. Planteatutako helburuak Intzidentzia handiagoko helburuei balio handiagoa ematea, besteak beste erabakiak hartu edo politikak formulatzeko babesari, arretaren egoerari herritarrek jarraipena egitea.	Helburuak ez dakizkigu edo ez dira argiak.	Behatokiak honako hau planteatzen du: (i) Informazioa biltzea eta monitorizatzea. (ii) Informazioaren sistematizazioa eta hedapena.	Behatokiak honako hau planteatzen du: (i) Informazioa biltzea eta monitorizatzea. (ii) Informazioaren sistematizazioa eta hedapena. (iii) Informazioaren analisisa. (iv) Lehen eta bigarren mailako informazioa sortzea.	Behatokiak honako hau planteatzen du: (i) Informazioa biltzea eta monitorizatzea. (ii) Informazioaren sistematizazioa eta hedapena. (iii) Informazioaren analisisa. (iv) Lehen eta bigarren mailako informazioa sortzea. (v) Segurtasunaren egoerari herritarrek jarraipena egitea / ikuskatzea. (vi) Erabakiak hartu/politika publikoak formulatzen laguntzea. (vii) Gizarte zibilaren eta gobernuaren arteko artikulazioa/iritzi publikoa sortzea.
2.2. Iturriak- bilketa: Neurketa, jarraipen eta ebaluazio ekitaldiak. Behatokiak erabiltzen dituen iturrien aniztasuna neurtzen du, informazio propioa sortzeko gaitasuna barne.	Informazio iturriak ezezagunak dira.	Bigarren mailako kanpo iturri batetik (1) jasotako ekitaldiak biltzen dira.	Bigarren mailako hainbat kanpo iturritatik (asko) jasotako ekitaldiak biltzen dira.	Bigarren mailako hainbat kanpo eta barne iturritatik (asko) jasotako ekitaldiak biltzen dira.
2.3. Bilketaren maiztasuna - Bilketa: neurketa, jarraipena, monitorizatzea eta ebaluatzen diren ekitaldiak.	Ekitaldiak biltzeko maiztasuna ezezaguna da.	Datuak urtero edo sei hilero jasotzen dira.	Datuak hiruhilero edo hilero jasotzen dira.	Datuak astero edo egunero jasotzen dira.

2.4. Neurketaren aldagarriak.	Hiru aldagarri edo gutxiago neurtzen ditu.	Lau eta zortzi aldagarri artean neurtzen ditu.	Zortzi eta hamahiru aldagarri artean neurtzen ditu.	Hamalau aldagarri edo gehiago neurtzen ditu (aldagarri horien artean honako hauek egotea espero da: adina, sexua...)
2.5. Behatokiaren balio agregatua - Bildutako informazioarekin garatutako jarduerak: (i) partekatu egiten du. (ii) antolatu/sistematizatzen du. (iii) berrikusi/berrantolatzen du. (iv) aztertu/interpretatzen du. (v) baliozkotu egiten du.	Jardueretako bat garatzen du.	Jardueretako bi garatzen ditu.	Jardueretako hiru edo lau garatzen ditu.	Bost jarduerak garatzen ditu.
2.6. Datuen erabilera eta hedapena Behatokiaren datuen erabilera eta hedapenaren zabaltasuna eta sakontasuna aztertzen du.	Ez du datuen erabilera edo analisiaren inguruko xehetasunik ematen.	Datuen erabilera edo hedapenaren berri ematen du, eta informazioa mugatua da. Adibidez, informazioari ematen dion erabilera eta hedapenaren inguruko adibiderik ez du ematen.	Datuen erabileran zein hedapenean mugak azaltzen ditu. Adibidez, foro eta ekitaldietan aldizka parte hartzea, buletinak aldizka argitaratzea baina webgunean ez da hedapenik egin.	Datuen erabilera zabal eta hedapen irekia azaldu du Adibidez, foroetan parte hartzea, ekitaldiak aldizka antolatzea, ohiko buletinak, webgunea egunean, eta abar. Egiaztapen mekanismo modura gutxienez honako hau argitaratu duen azken urte eskuragarrian bilatuko da: (i) liburua edo kapitulua, (ii) artikulua aldizkarian edo egunkarian, edo (iii) buletina.

2.1. aldagarrian, Planteatutako helburuak, gomendioak prestatu eta hedatzea gehitu beharko litzateke; emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan eragina duten neurri eta baliabideak definitu eta hobetzen laguntzeko modu gisa uler daitezke. Zorrotz esanda "politika publikoak formulatzeko laguntza" izatera iritsi gabe, bigarren mailan adierazitako maila baino pixka bat handiagoa da.

2.3 aldagarriaren maila "Finkatuaren" eskakizuna **Bilketaren maiztasuna - Bilketa**, izan daiteke gehiago indarkeria delituen behatoki batena, modu idealean biktimen eta gertaeren eguneroko erregistroa eskatzen duena, eta ez zerbitzu eta baliabideetan arreta datuen behatokia, horren informazio garrantzitsua ez baita intzidentziak edo kasuak egunero bildu eta azaltzea, arreta zerbitzu gehienak denboran gehiago luzatzen baitira.

3) INTZIDENTZIA				
ARLOA ETA ALDAGARRIEN MULTZOA	0. maila- Hasiberria	1. maila-Oinarrizkoa	2. maila-Bitartekoa	3. maila- Aurreratua/Finkatua
3.1. Estatuko edo nazioarteko sareetan parte hartzea Behatokiak estatuko edo estatutik kanpoko sareekin duen lotura eta konexio maila aztertzen ditu.	Ez du parte hartzen edo ez du informaziorik ematen.	Sare batean hartzen du parte.	Sare bitan edo gehiagotan hartzen du parte, baina horietan duen rola ez da oso aktiboa.	Sare bitan edo gehiagotan hartzen du parte, eta horietan rol nagusia du (eragin handia du).
3.2. Produktu akademikoak 1) Liburuak edo kapituluak. 2) Artikuluak aldizkarietan edo egunkarietan. 3) Buletinak. Behatokiaren lanaren analisi eta hedapenaren ekoizpena neurtzen du, bereziki ezagutza produktuak eta informazioa.	Ez du horrelakorik ekoizten.	Hiru produktu akademikoetatik bat ekoizten du.	Hiru produktu akademikoetatik bi ekoizten ditu.	Hiru produktu akademikoetatik hiru ekoizten ditu.
3.3. Lorpenak eta inpaktua 1) Eragina politika publikoan. 2) Hedapena eta lana komunikabideekin.	Arlo batean lorpenak azaldu ditu.	Lorpenak azaldu ditu arlo batean edo batzuetan baina ez du eraginik politika publikoan.	Lorpenak azaldu ditu lau arlotik hirutan, besteak beste, politika publikoetan eragitea eta gardentasunean eta informaziora sarbidea izatean.	Lau arlotan lorpenak azaldu ditu.

3) Gardentasuna eta sarbidea informaziora 4) Gaikuntza eta lan pedagogikoa				
3.4. Erabakiak hartzeko batzordeetan edo analisi unitateetan parte hartzea , udalerri, sail, (estatu, probintzia) edo herriko ekintzei dagokienez.	Ez du horrelakorik egiten edo ez du azaltzen.	Bai, parte hartzen du batzorde edo unitate batean edo bitan, eta ez du eraginik politika publikoetan.	Bai, parte hartzen du batzorde edo unitate batean edo bitan, eta eragina du politika publikoetan.	Bai, parte hartzen du hiru batzorde edo unitatetan edo gehiagotan, eta eragina du politika publikoetan. Kasuen georreferentziazioa (Art Gis, Mapinfo, etab)

3.2. Produktu akademikoak: Gure ingurunean Behatokiko txostenak, azterlanak eta artikuluak ez genituzke produktu akademiko gisa definituko; izan ere, termino horiek soilik erabiltzen dira ikasketa guneetan prestatutako lanei erreferentzia egiteko, batez ere unibertsitateetan; hortik kanpo analisi eta ikerketen emaitza gisa sortutako txosten eta azterlan guztiak hartzen ditu barne, jatorria edozein dela ere. Hortaz, Behatokiaren produktuak artikuluak, buletinak izango lirateke, eta liburu gisa definitutakoak txosten edo azterlan osoak izango lirateke.

3.3. Lorpenak eta inpaktua: Ebaluazioen emaitzen arabera, gomendioen eta jarraipenaren bidez, baita zerbitzu eta baliabideen arreta datuen urteko analisisan ere, gutxienez Bizkaiko Foru Aldundikoa, Behatokiak ematen duen ezagutza baliagarria izan da beharrianak eta joerak antzemateko; hala, genero indarkeriaren biktima izandako emakume eta adingabeei arreta emateko zerbitzu, baliabide eta programak planifikatu dira, eta, hala, politika publikoetan eragina izan dela ulertzen da. Halaber, Behatokiaren ezagutza erabili da komunikabideetan hedapen artikuluak egiteko, eta oso balorazio positiboa lortu du ebaluazioetan eta beste mota bateko komunikazioetan, gure ingurune barruan jasotakoak zein beste autonomia erkidego batzuetan, oso ezohikoa delako Behatokiaren jardueraren, produktuen gardentasuna eta irisgarritasuna erabatekoa izatea eta intereseko dokumentuak anitzak eta asko direlako.

4) IRAUNKORTASUNA				
ARLOA ETA ALDAGARRIEN MULTZOA	0. maila-Hasiberria	1. maila-Oinarrizkoa	2. maila-Bitartekoa	3. maila-Aurreratua/Finkatua
4.1. Fundazio urtea. Behatokiak funtzionamenduan daraman denbora zehaztea du helburu.	Sei hilabete baino gutxiago.	Zazpi hilabete eta bi urte artean.	Bi eta bost urte artean.	Bost urtetik gora.
4.2. Instituzionalizazio maila eta iraunkortasun finantzarioa. Nola bermatzen da iraunkortasuna? Behatokia sortzea ezarri zuen lege/ordenantza/dekretu/egintza legegile bat dago. Behatokiaren instituzionalizazio maila eta horren iraunkortasun finantzarioaren potentzialtasuna neurtzen du.	Ez dago inolako bermerik Behatokiari eusteko.	Baliabideak bilatzen dira beharrezkoak diren neurrian: dohaintzak, hitzarmenak eta abar.	Bermea dago (programa, funtsa, eta abar), baina epe labur eta definituan (ez urtebete baino gehiago).	Bermea dago (legea, ordenantza, funtsa, programa eta abar) epe luzera, eta finkotzat jotzen da (urtebete baino gehiago).
4.3. Lan indarraren egonkortasuna. - Kontratu motak. Lan indarraren kontratazio motak aztertzen ditu.	Ez dakigu zein kontratu mota diren.	Behatokia batez ere boluntarioen/laguntzaileen mende dago. Langileen % 50 baino gehiago zerbitzu sarien arabera kontratatu dira (aholkularitza, zerbitzuen prestazioak, zerbitzu sariak), eta planta funtzionario gisa daude kontratatuta (staff, indefinitua).	Behatokia, batez ere, aholkularien esku dago. % 50etik gora.	Behatokia batez ere planta funtzionarioen esku dago. Langileen % 50 baino gehiago, egonkortasuna eta iraunkortasuna adierazteko.

4.4. Agintea aldatzeko prestakuntza.	Ez dago prestatuta eta ez du epe laburrean ekintzarik aurreikusi.	Ez dago prestatuta baina prestatzeko ekintzak aurreikusi ditu.	Aldaketei aurre egiteko prestatuta dago.	Aldaketei aurre egiteko prestatuta dago eta arrakastaz egin die aurre.
4.5. Langileak gaitzeko planak daude.	Ez dago horrelakorik edo ez dira jakinarazi.	Ez dago gaikuntza planik, baina etorkizunean diseinatzeko planak daude.	Gaikuntza planak diseinatzen ari dira.	Gaikuntza planak existitzen dira eta aplikatu egiten dira.

4.4. Agintea aldatzeko prestakuntza: 2020ko urtarrilean, Behatokiak Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren mende egoteari utzi zion eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren mende jarri zen. Urteko jarduerari buruzko txostenak, banaketa zerrendak, kontaktuak, memoriak eta gainerako produktuak antolatzea, eguneratzea, eskuragarri egotea eta zorrotzak izateari esker, funtzioak betetzen jarraitu ahal izan du, aldi berean egokituz erakunde arduradun berriaren beharrian eta eskaeratarako; hala, hirugarren mailan egoteak ere frogatzen du.

4.5. Langileak gaitzeko planak daude: 0 mailan kokatu da; izan ere, 2004tik 2021eko hasierara idazkaritza tekniko eta administratiboko lanak egin dituen enpresak urtero, maila partikularrean, Behatokian lan egiten duen pertsona batekin edo batzuekin, zenbait prestakuntza jarduera egin ditu: ikastaro presentzialak, on line ikastaroak, jardueretan eta biltzarretan parte hartzea, eta abar, horri lotutako gaietan: adierazleak, datuen tratamendua eta haien sistemak eta indarkeria matxistaren esparruko zehatzak; hala ere, Behatokiak ez du langileak gaitzeko jarduketa planifikaturik aurreikusi.

2.3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BEHATOKIETARAKO ADIERAZLEEI ERANTZUNA

2003 eta 2004 artean, Mujeres fundazioak, estatu mailako Genero Indarkeriaren Behatokiaren kudeatzaileak, Madrilgo Emakumeen Kontseiluarekin kolaboratu zuen Genero Indarkeriaren Behatokiaren inguruko Azterketa eta Hausnarketa Mintegia prestatzen. Mintegiaren emaitza gisa sortu da emakumeen kontrako indarkeriaren behatoki bat zer izan behar den zehazten duten lerroen dokumentua.

Bildutako adierazleei erantzuna ematen dien emaitzen taula bat jaso da, baina zerrendan ez da mailaren araberako kategorizaziorik egin, GIB ereduan gertatzen den moduan.

Kolore **gorriz** markatu da erantzuna negatiboa bada, eta kolore **berdez** erantzuna baiezkoa bada; kolore grisez adierazi da adierazle horri buruzko analisirik ez badago edo horri erabat egokitutako erantzun positiborik ez badago.

1. Behatokiaren izaera eta ezaugarriak	
▪ Independentzia eta autonomia	
▪ Izaera juridiko propioa	
▪ Osoko Bilkuran funtzionatzea	
▪ Koordinazioa arduradun baten esku	
▪ Diziplina anitzeko konpromisoa	
▪ Egin beharreko jarduera eta jarduketan aurreikuspena	
▪ Ordezkaritza orekatua eta funtzionamendu demokratikoa	
▪ Emakumeen erakundearen parte hartzea	
2. Funtzioak	
▪ Egoeraren analisia, baita bilakaera ere	
▪ Ondorioak eta gomendioak prestatu	

▪ Informazioa biltzeko tresnak prestatu	
▪ Aldizka txostenak eta ondorioak formulatu	
▪ Informatzaileen sarea sortu	
▪ Publikoari irekitako dokumentazio funtsa sortu	
▪ Arreta zerbitzu eta baliabideak baloratu	
▪ Ikerketak eta azterlanak sustatu	
▪ Programak eta ekimenak ebaluatu	
▪ Genero indarkeriaren kausak, ondorioak eta efektuak aztertu	

3. Prozesuak eta emaitzak

▪ Informazioaren sistema integratua	
▪ Datuak sakabanatzea, omisioa eta bikoiztea saihestu	
▪ Informazio gardentasunaren bermea	
▪ Informazio objektiboa, fidagarria eta konparagarria eskaini	
▪ Kontsulta aldia inplikaturako eragileen artean	
▪ Definizioak eta kontzeptuak bateratu	
▪ Adierazle gako komunak, adostuak eta konparagarriak	

4. Adierazleen gaiak

▪ Esparru politikoa: lehentasun politikoa...	
▪ Datu bilketa: banatuta sexuaren arabera, indarkeria motaren arabera, eta abar	
▪ Ikerketak eta azterlanak: aurrekontuak ikerketak egiteko, hedapena...	
▪ Gizarte zibila eta emakumeen elkarteak: babesak eta finantzaketa...	
▪ Prebentzioa: kanpainak, inpaktua, eta abar	
▪ Profesionalen prestakuntza: ikastaroak, lanbideak...	
▪ Zerbitzuen prestazioa: zerbitzu mota eta kalitatea...	

3. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK

Nabarmendu behar da ebaluazio prozesu honetan parte hartzaileen kopurua nabarmen baxuagoa izan dela aurretiaz egindako antzeko prozesuetan baino. Arrazoiei buruzko informaziorik ez dagoenez, ondorioztatu daiteke 2020an zehar bizitako egoerak aldaketa handiak ekarri dituenek lan jarduerak, jarduera-profesionalak eta bizitzakoak ohi bezala garatzean, garrantzia handia izan duela horren erantzun gutxi jasotzean, bereziki tokiko entitateen kasuan.

Bestalde, Behatokiko Osoko Bilkurako parte hartzaileen erantzun eskasek lotura izan dezakete arrazoi berarekin eta Behatokirako erakunde ordezkariak aldatzeko unearekin, hori ere 2020an zehar gertatu baita.

Horrenbestez, lortutako emaitzak ez dira aurrekoetan bezain esanguratsu gisa ulertzen, eta ondorioztatu daiteke une honetan ebaluazioan parte hartzeak esfortzu gehigarria eskatu duenez, horrek ebaluatutako organoaren ibilbidean interes edo inplikazio bereziki nabarmena izan duten pertsonen ordezkagarritasunean lagundu duela. Hala, parte hartu duten pertsona guztiek "interes maila altua" agertu dute Behatokian parte hartzeari dagokionez.

a. Hobekuntza proposamenei 2017-2020 aldian emandako erantzunak

Azken lau urteetako jarduerak eta plangintzak, posible izan den neurrian, eskari zehatzagoak bildu dituzte, eta gomendatutako helburu orokorragoetarantz aurrera egiteko ildoei eutsi die.

Errealitatea ezagutzea hobetzeari dagokionez, aurretiaz izandako ibilbideari eutsi dio, etengabeko berrikuspenarena, alegia, eta gaitasuna izan duten entitateek emandako adierazle berriak urtero gehitu dira; ondoren, analisi ildoekin jarri dira.

Erantzun integral modura, 2020an erakunde arduradunak adierazle berriak eta haien balizko iturriak bilatzeko berariazko prozesua martxan jartzea erabaki du, azkenean beste datu batzuk txertatzea ahalbidetuko duena, baita bilketa eta hedapen epeak murrizteko aukerak ikustea ere. Gaur egun jaso daitekeen informazioa hirugarren sektoreko eta entitate publikoekin identifikatzea da gakoa, eta datu berrien bilketa adostea. Informazio sisteman bestelako indarkeria matxista mota batzuk txertatzea da

helburua, erakunde arteko II. akordioan integratu gabeak, ahal den neurrian intersektionalitatea areagotuz.

Organoarena zein bere produktu eta ezagutzaren hedapena hobetzea da gehien eskatutako garapen alderdia. Jarduketa esparru horretako aukerak oso mugatuta daude maila teknikoan, antolaketagatik eta erakundeen eta politiken lehentasunagatik. Hala, nabarmena da 2020an erakundeak hedapena sustatzea Behatokiaren lehentasun modura hartu duela; webgunea birmoldatuz hasi da, baita sarbidea nabarmen hobetuz ere. Ondorioztatu daiteke jarduketa horrek garrantzia berezia izan duela hedapen tresna horren balorazioak izan duen hobekuntza nabarmenean.

Ebaluazio galdetegiko erantzunen arabera, helburu berriak eta aldi horretarako proposatutako jarduerak argi eta garbi bete dira, eta Behatokiaren funtzioetan zein Behatokiaren lan prozesuei lotutako alderdietan egindako lana oso gogobetegarria izan da.

Baliabideen Katalogoa, Baliabideen Atlas, Arretaren Zifrak agiria eta Baliabideen Mapa bereziki baloratutako produktuak izan dira, eta webgunea eta buletina antzematen dira irismenik handiena duten produktu gisa Behatokian ordezkartza duten erakundeetan.

b. Behatokiaren heldutasunari buruzko emaitzak

Emaitzek oso maila altua erakusten dute **erakunde gaitasunari dagokionez**, baita arrakastaz eta modu zabalean lantzen duen **ezagutza arloan** ere. **Iraunkortasuna** maila ertain-altuan dago, eta **intzidentzia da** gutxien garatutako faktorea.

Erakundeen erabakiak neurri handi batean erabakigarriak dira intzidentzia gaitasunean, bereziki Behatokiak inguruko beste sare batzuetan edo erabakiak hartzeko analisi unitate edo batzorde batzuetan parte hartzea sustatu eta errazteko, baita presentzia publikoan ere.

Organoak analisirako erakunde arteko eta diziplina anitzeko baliabide propioak dauzka (Osoko Bilkura eta talde teknikoa), eta, neurri horretan, politika publikoen gaineko erabakietan zeharkako eragina duen foroa da; baina Behatokiaren ekarpenak oso gutxitan ageri dira edo oso gutxitan aitortzen dira izaera propioz, eta horrek zaildu egiten du arlo horretako ebaluazioa, Behatokiaren jardunak inguruan duen eraginari dagokionez parte hartzaileen pertzepzioak jasotzeaz gain, galdetegietako galderen bitartez.

c. Emakumeen kontrako indarkeria behatokitarako adierazleen erantzunen emaitzak

Oro har, Behatokiaren funtzioek, prozesuek eta emaitzek zein izaerak erantzun positiboa lortu dute aipatutako analisi foroan adostutako planteamenduen aurrean.

Adierazleen gaiak bi arlotan bildu dira: **Datuen bilketa** eta **Zerbitzuen prestazioa** eta analisia, erakundearen eredu nagusia islatuz: Behatoki estatistikoa (think tank), administrazio publikoaren mende; horren bitartez, hainbat erakunderen bidez, emakumeen aurkako indarkerian erasaten duten politika publikoen baliabideen plangintzan eta eskemetan esku hartu ahalko da.

Bukatzeko, etorkizuneko erronkei buruzko hausnarketa hauek azaltzen dira:

Behatokiaren ibilbideak inpaktu positiboa izan du emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea eta baliabideak hobeto ezagutzeko, Bizkaian, eta kasuan kasuko eskumen esparruan. Prozesu horien baliagarritasuna aise berretsita da balorazio eta emaitzen bitartez; hala ere, zenbait gaitan erakunde bultzada behar da oraindik, esaterako **eragiteko gaitasunean** eta analisi esparruen **irismenean**. Faktore horiei dagokienez, etorkizunerako erronka hauek identifikatu dira:

- Analisiak eman eta gehitzea ahalbidetuko duten sare eta foroetan parte hartzea, ikuspegiak, kolaborazioa eta ezagutza partekatzea aberastuz.
- Antzeko beste erakunde batzuekiko harremanak eta kolaborazioak handitzea, eta garatutako lanaren hedapena areagotzea, bertan parte hartzen duten erakunde eta elkarten artean zein esfera profesional eta sozialean.
- Izena aldatzeak, *genero indarkeria* utzi eta *indarkeria matxista* izena hartzeak, eta, hala, aztertutako adierazleak ere areagotzeak, erronka handia dakar izaera desberdineko entitateekin egin behar delako lan, haiek ere, aldi berean, haien lan eremua eta informazio sistemak handitzeko eta prozedurak berrikusteko. Halaber, horrek ekarriko du datu berriak biltzea, fidagarritasuna bermatzea eta informazio sistema berria garatzea, tarte egiteko administrazioakoak ez diren bestelako izaera daukaten datuei, Behatokiak orain arte landu dituen datuekin batera, gure inguruan indarkeria matxistaren eta horren errealitatearen forma desberdinen ezagutza areagotzea lortzeko.